# PROBLEMAK

Batuketa edo kenketak egiteko beharrezkoa da kantitate guztiak **<u>unitate berean</u>** adieraziak egotea . Emaitza ere unitate berean adieraziko da .

Ebazten

1. Kalkula ezazu zenbat metro egiten dituen ibiltari batek goizean 3 kilometro eta arratsaldean 780 metro korritzen dituela jakinik.
   Prozedura:
   3 Kilometro metrora pasatzeko

   Ebazpena:

2. Kalkula ezazu gizon bat Ibarratik zer distantziara dagoen, Usategietatik goizeko zortzietan abiatu dela eta 1 200 metro egin dituela jakinik. Usategietatik Ibarrara 3 km eta 500 metro daude.
   Prozedura:
   3 km eta 500 metro, metrotara pasatzeko

   Ebazpena:

3. Gurpil batek 90 cm aurrera egiten du, ematen duen bira bakoitzean. Zenbateko distantzia korrituko du 450 bira ematean?
   Prozedura:

   Ebazpena:

4. Mahai zapi bat egiteko 3 metro oihal behar dira. Zenbat mahai zapi izango dira hirurogeina metroko bi oihalekin?
   Prozedura:
   Kalkulatu zenbat metro dituzten bi ohialek.

   Ebazpena: